



# IPARRALDEKO SUGE LEUNA

## *Coronella austriaca*

### TAMAINA

40 zm

### ITXURA

Iparraldeko suge leunak itxura lerdin samarra du, eme zaharrak nahiko masiboak izan daitezke. Burua biribildua du eta gorputzetik kasik ez da bereizten. Bizkarreko ezkatat oso leunak ditu eta kolorea asko aldatzen da: atzeko tonua okre, gris edo marroia izan daiteke.

## NOLA IDENTIFIKATU?



### NOIZ?

> Martxo erditik urri bukaerara

### NON?

> Sugandila bizierrule ugari den lekuetan  
> Larreetan, leku harritsueta, ezpondetan...



Hegoaldeko suge leuna, suge biperakara, aspis sugedorria edo Kantauriar sugedorriarekin nahas daiteke. Ez da pozoitsua eta ez da arriskutsua gizakiarentzat, baina manipulatu denean kexatzen ahal da eta ausiki dezake.

## AURKEZPENA

### BIZI ESPERANTZA

10 urte

### ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Nagusiki beste narrasti batzuk jaten ditu (sugandilak, ziraunak...).

Emeak urtean 3-15 gazte erditzen ditu. Ez du arraultzarik erruten, baina ttipi bakoitza mintzezko arraultza garden batean sortzen da, berehala urratzen dena.

Iparraldeko suge leuna urria aldera negua igarotzen hasten da.

Bere behar termikoak nahiko ttipiak dira eta termoregulazio eraginkorra du. Horregatik, kasik ez da agerian egoten.

## BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Iparraldeko suge leuna nahiko zabaldua izanik ere, laborantza eta oihangintza-jardueren areagotzea kaltegarriak zaizkio espezieari, bereziki paisaiaren zatiketarekin.

Alta, Iparraldeko suge leunaren baldintza ekologikoak altuak dira eta oso gutti mugitzen da egunez.